

# Gizajo baten

## EGUNKARIA

### ESKOLA ZAHARRA




Jeff Kinney

ALBERDANIA

Gizajo baten

EGUNKARIA


ESKOLA ZAHARRA



Jeff Kinney

ALBERDANIA





---

---

### JEFF KINNEY-REN BESTE LIBURUAK

---

*Gizajo baten egunkaria (Greg Heffley-ren egunerokoa)*

---

*Gizajo baten egunkaria: Rodrick-en legea*

---

*Gizajo baten egunkaria: Hauxe besterik ez nuen behar*

---

*Gizajo baten egunkaria: Egun zakurrak*

---

*Gizajo baten egunkaria: Egia gordina*

---

*Gizajo baten egunkaria: Etxean itxita*

---

*Gizajo baten egunkaria: Bikotean hiru*

---

*Gizajo baten egunkaria: Suerte txarra*

---

*Gizajo baten egunkaria: Txango zoroa*

---


---

ITZULTZAILEA:

---

Miren Arratibel

---




# Gizajo baten EGUNKARIA

10

**ESKOLA ZAHARRA**

Jeff Kinney



ARGITARATZAILEAREN OHARRA: Fikzio lan bat da hau. Izenak, pertsonaiak, lekuak eta gertakariak egilearen irudimenaren emaitza dira, eta fikzioaren legeen arabera erabili daude. Beraz, antzekotasunik baldin badago benetako pertsonekin (hilak zein biziak), merkataritza guneeekin, leku edo gertakariekin, halabeharri zor zaio erabat.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza  
izan du liburu honek.*

Jatorrizko izenburua:  
*Old school*

Wimpy Kid testu eta ilustrazioen copyright-a © 2015, Wimpy Kid, Inc.  
DIARY OF A WIMPY KID®, WIMPY KID™ eta Greg Heffley design™  
Wimpy Kid, Inc.-en marka erregistratuak dira, eta lan honen azalaren diseinua  
Wimpy Kid, Inc.-en irudi komertziala da.  
Eskubide guztiak erresalbatuta.

Liburua Jeff Kinneyk diseinatu du  
Azala Chad W. Beckerman-ek and Jeff Kinneyk diseinatu dute

Ingelesez lehen aldiz, 2015ean,  
Amulet Books-ek argitaratua eta ABRAMSek inprimatua.  
(Herrialde guztietarako eskubide guztiak erresalbatuta)

© Itzulpenarena: 2018, Miren Arratibel  
© Argitaraldi honena: 2018, ALBERDANIA, S.L.  
Istillaga, 2 behea C, 20304 Irun  
Tf.: + 34 943 63 28 14  
alberdania@alberdania.net  
**www.alberdania.net**

ISBN: 978-84-9868-414-8  
Legezko Gordailua: SS-1073/2018

AITARENTZAT



## IRAILA

### Larunbata

Helduek "gure garaiez" hitz egiten dute, eta BERAIEK txikiak zirenean dena askoz hobea zela esaten jarduten dute beti

Nire ustez, ordea, jeloskor daude, NIRE belaunaldikoek punta-puntako teknologia eta beraiek txikitzen ez zituzten gauza horiek guztiak ditugulako.

Uste osoa dut, hala ere, seme-alabak ditudanean, nire gurasoak ORAIN diren bezalakoxea izango naizela neu ere.



Amak beti esaten du BERA gazteagoa zenean, denek elkar ezagutzen zutela, eta gauza handia zela hori, familia erraldoi baten modukoa zelako gure herria.


NIRI, ordea, ez zait hain gauza ederra iruditzen. Pribatutasuna atsegin dut nik, eta ez dut batere gustukoa inork nire kontuetan muturra sartzea.



Amaren ustez, gaur egungo gizartearen arazoa da jendea pantaila bati lotuta bizi dela eta inork ez duela betarik hartzen inguruan bizi direnak ezagutzeko.

Horretan ere ez nator ba amarekin oso bat.

Nire iritzian, ONA da tarte pixka bat uztea.



Azkenaldian, herri guztian zehar sinadurak biltzen ibili da ama, jendea berrogeita zortzi ordu igaro ditzan telefono mugikorrik eta gailu elektronikorik erabili gabe.

## DESKONEKTATU, BERRIRO ELKAR KONEKTATZEKO!



Elektronika gure bizitza hondatzen ari da! Bizi gaitezen asteburu batez traste elektronikorik gabe, elkar hobeto ezagutzeko. Prest? Eman izena!

- |          |           |
|----------|-----------|
| 1. _____ | 41. _____ |
| 2. _____ | 42. _____ |
| 3. _____ | 43. _____ |

Ehun sinadura behar ditu eskaria udaletxean  
aurkezteko, baina majo kostatzen ari zaio jendeak  
sinatzea.

Laster amore emango ahal du! Ez dakizu  
etxe koentzat zein nekagarria den ama ezagutzen  
ez dugun plantak egiten ibili beharra.




Benetan, ez dakit zer demontregatik uste duen  
amak hobe dugula denboran ATZERA egitea. Ez  
zait iruditzen garai bateko egoera batere atsegina  
zenik.

Begiratu, adibidez, zuri-beltzeko aspaldiko  
argazkiak: inor ez da ageri IRRIBARRETSU.




Aspaldi, jendea askoz ere GOGORRAGOA zen,  
orain baino.

Baina gizakiak EBOLUZIONATU egin du,  
aizu, eta, orain, bizirik irauteko ezinbestekoak  
ditugu hortzak garbitzeko eskuila elektrikoak,  
merkataritza guneak eta izozkiak.




Ez dut pentsatu ere egin nahi nolako pena hartuko luketen gure arbasoek, nora iritsi garen ikusiko balute. Baina aire girotua asmatu zuen norbaitek halako batean, eta akabo: jada ez dago itzulbiderik.



Hain gaizki ohituta gaude, hemendik gutxira ez dugu etxetik atera ere egin beharko, nahi ez badugu.



Are gehiago: horrela jarraitzen badugu,  
etorkizunean BIZKARREZURRIK ere ez du  
izango gizakiak.



Batzuk kexu dira, teknologiak txepeldu egin gaituela  
eta horrelakoak esanez. Baina, zer nahi duzu  
esatea, niri ez zait hain gauza TXARRA iruditzen.

Gaur egun, gure bizimodua hobetzeko HAMAIKA  
kutixi ditugu. Zapitxo hezeak, adibidez. Ehunka  
urtez, komuneko papera erabili zuen jendeak, eta,  
halako batean, jenio bati ideia txundigarri bat  
bururatu, eta goitik behera aldatu zen dena.



Harritzen nauena da ideia hori asmatzeko  
HAINBESTE denbora behar izatea. Benetan,  
sinestezina iruditzen zait bonbilla asmatzea bururatzen  
zaion norbaiti ez bururatzea zapitxo hezeena.




Eta BATEK daki zer erokeria asmatuko duten  
hurrena gure bizimodua errazteko. Edozer gauza  
dela ere, hantxe izango naiz ni hura erosteko  
ilaran aurren-aurrena.

Amarengatik balitz, ordenagailurik, telefono  
mugikorrik eta zapitxo hezerik ez zegoen garaietan  
bizi ziren bezala biziko ginen.

Ez dut pentsatu ere egin nahi zer izan behar duen  
zapitxo hezerik gabeko mundu batean bizitzea.

Igandea

Aitak dio BERA txikia zenean, haurrek kalean  
ematen zutela egun osoa, udan, afalordura arte.




NIK uda honetan egin dudaren guztiz  
KONTRAKOA, alegia.


Zinemako udalekuetan ibili nintzen uztailean eta  
abuztuan; aire girotua zuen areto batean egunean  
zortzi orduz filmak ikusi eta ikusi.

Zinemako udalekuetarako izena ematea erabaki  
nuen, pentsatuz jendeak SERIO hartuko zuela  
filmen kontua, NIK bezala.

Baina BAI zera! Gurasoek seme-alabak  
hautzaindegi ziztrin batean bezala uzteko toki  
bat zen.



Areto ilun batean hainbeste denbora ematearen alde  
txarra zen eguna amaitzean ordu erdi behar izaten  
nuela begiak berriro argitasunera egokitzeke.



Banuen zinemako udalekuetan izena emateko beste arrazoi bat: ETXETIK alde egiteko aitzakia. Txerritxo etxean dugunetik, makina bat komeria izan ditugu etxean. AFALORDUAN batez ere.




IKARAGARRIZKO astakeria da txerri bati mahaian jaten uztea, horren erruz familiakotzat BAITU bere burua. Eta horixe besterik ez genuen behar: txerriak pentsatzea gure maila berekoa dela.


Amak pentsatu zuen dibertigarria izango zela txerriari gauza barregarriak egiten erakustea, eta horrelaxe hasi zen atzeko hanken gainean altxatzen zen bakoitzean txerriari gaileta bat ematen.



Baina bi hankatan OINEZ ere ikasi zuen txerriak, eta harrezkero ez da berriro lau hanken gainean ibili. Are OKERRAGOA: Manny nire anaia txikiak bere galtza batzuk jantzi zizkion, eta Walt Disneyren pertsonaia batekin biziko bagina bezala gaude orain.




Lehen, amak paseatzera ateratzen zuen txerria, baina, bi hankatan oinez hasi zenetik, txerriak erabaki du lokarriaz lotuta ibiltzeak duintasuna kentzen ziola.



Amari beldurra ematen zionez txerriak ihes egin eta hura aurkitu ezin izateak, GPS bidez jarraipena egiteko txipa duen lepoko bat erosi zion.

Amak lepokoa jarri eta bost minutura, ERANTZI egiten zuen txerri temati halakoak. Eta ez galdetu nola ARRAIO egiten zuen, gauza jakina baita txerriek BEHATZ POTOLORIK ere ez dutela.



Orain, beraz, bere kasa sartzen eta ateratzen da txerria, eta BATEK daki zertan ematen duen denbora. Okerrena da niri ordua jartzen didatela etxera itzultzeko, eta txerriari EZ.

